

Gure enpresari dagokionez, *Help palace* izena jarri diogu, gure helburua jendea laguntzea delako gure zentroan, hau Tolosan kokatzen da, baina denbora igaro ahala zabaltzea da gure helburu handienetakoa, Euskal Herriko alde guztietan gure zerbitzuaz goza dezaten. Horretaz gain, etxera ere zerbitzuak gauzatuko ditugu, gehienbat adineko jendeari eta arazo oso larriak dituzten kasuetan, pentsatzen dugulako adineko jendeak osasun fisikoaz gain sozialetan zein psikologikoetan ere arazo izugarriak izan daitezke. Hauei zerbitzua 10 euro gehiagoan emango diegu, prezioa ez dugu izugarri handia jarri nahi; izan ere, arazoaz gain ez zaigu beharrezkoa iruditzen arazo handiagoa sortzea diruagatik, azkenaldian gainera pertsona hauek hilabeteetan irabazten duten diru kopurua oso eskasa da, eta ez zaigu egokia iruditzen dirua izatea arazo bat guregana gerturatzeko.

Hau guztia kontuan izanda, gure helburu nagusia oso garbi dugu zein den, guk gizarte osasuntsua nahi dugu, arazoak ahalik eta gutxien dituen, denak gustura egotea garrantzitsua delako bai besteekin zein gure buruakin ere, inguru oso atsegin bat osatuz beti ere.